

RECURSOS HUMANOS**IRAGARKIA**

Basauriko Udalaren Alkate Andreak, 2010ko apirilaren 12ko datarekin 1285/10 zenbakidun honako Dekretu hau eman zuen:

LEHENENGO: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, zeinetan ezartzen den, aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideen premiak egonda, sarrera berriko pertsonak hartuaz bete behar direnean, Enpleguko Eskaintza Publikoa egingo dela, eta Plantillan gertatutako aldaketak ikusirik eta Udal Arloetako Ordezkaritzek proposatutako langile premiak azterturik, 2010eko Korporazioaren Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen da, Erabaki honen Eranskinean dauden aginduen arabera.

BIGARRENA: Aipatu Enplegu Publikoaren Eskaintza egokia da 2010eko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 23. artikuluan adierazten diren irizpideekiko, kontuan izanik Basauriko biztanleria 50.000 biztanletik beherakoa dela (23.1.f. artikulua).

HIRUGARRENA: Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. Tituluan adierazitakoa betetzeko, Hizkuntza Normalizazioari dagokiona, eta apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan esandakoa, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera, eta nahiz eta kontuan izan behar den Enpleguaren Eskaintzari dagokion deialdia plazak betetzera zuzendua dagoen, eta ez lanpostuak betetzera zuzenean, eta horien hizkuntza eskakizunak indarrean dagoen Korporazioko Lanpostuen Zerrendan daude ezarrita, bere egunean Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek egindako txostenen arabera bat datozenak, beraz, plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak, Enplegu Eskaintzan aurreikusitakoak, Eranskinean agertzen direnak izango dira.

Hizkuntza eskakizuna ezarrita daukaten plazetan, eta horren zehaztapena, dagokion deialdian egingo da, derrigorrezko betebeharra izango da hori sarrerarako, eta horren egiaztapena oinarrietan zehaztuko den moduan egin beharko da.

Gainontzeko plazetan, euskararen ezagutza meritu gisa hartuko da, eta portzentaje bat suposatuko du, zeinak ezingo duen, inola ere, ehuneko bosta baino txikiagoa izan, eta ezta ere, ehuneko hogeia baino handiagoa, hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehienezko puntuazioa kontuan hartuta, hurrengo eskala honen arabera:

- 1. eta 2. hizkuntza eskakizunak % 5etik % 10era
- 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak % 11tik % 20ra

LAUGARREN: Aldi bateko programak burutzeko aldi bateko pertsonalaren izendapenari kalte egin gabe, hori Enplegatu Publikoaren Estatutuko 7/2007 Legearen 10. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 17. Xedapen Gehigarrian aurreikusita dago, plantillan bete gabe dauden plazetarako bakarrik izendatu ahal izango da bitarteko pertsonala, beti ere, karrerako pertsonal funtzionarioek betetzen ez dituztenetan, edo aldi bateko absentziak ordezkatzeko den kasuetan.

Bitarteko baldintza duen pertsonalak automatikoki utziko du lanpostua, plaza jabetzan betetzen den unean, hain zuzen, dagokion deialdian gairitu duen izangaiak, karrerako funtzionario bezala, jabetza hartzen duenean, edo ordezkatu berriro dagokion lanpostura itzultzen denean, eta baita ere, baldin eta Korporazioak, aurretikako edozein unetan, ulertzen badu ezen, urgentziazko arrazoiak edo izendapena egiteko premiak desagertu direla, eta hark ez du indemnitazioa jasotzeko edo erreklamazioa egiteko inolako eskubiderik izango, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 92. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Aldi bateko programak egiteko egin diren izendapenak direnean, aipatu programetarako aurrekusi den denbora amaitzean utziko dute lanpostua.

BOSGARRENA: Ondoriorik gabe uzten da 2007ko urtarrilaren 3ko 301, 302, 306, 305 Alkate Dekretuen lehen puntua, dekretu horietan hautaketa probetako oinarri onespena ematen zaie, Gizarte Langileko 3 lanpostu, Aparejadore lanpostu 1, Zerbitzuen Jagole lanpostu 1 eta Lan Seguratasuneko Teknikari lanpostu 1, hurrenez hurren, 2005eko Eskaintza Publikoan jasoak, zeina 2005eko urriaren 10eko 5383 Dekretu bidez onetsia izan zen, izan ere, lehen bost lanpostuak 2010eko Enplegu Eskaintza Publikoaren barruan sartzen baitira, eta hori horrela, horren arabera jokatu da, hau da, dagozkion deialdiak eta hautaketa oinarriak onetsiko dira, horiei buruzko xedapen berrien bidez, eta oinarri bezala ebazpen honen lehen puntuari erabakitakoa hartuko da. 2007ko urtarrilaren hiruko 305 zenbakidun Dekretuan ezarritakoa, Lan Seguratasuneko Teknikari lanpostu baten oinarriak onesten dituen, ondoriorik gabe geratzen da, zeren eta aipatu lanpostua amortizatua geratu baitzen 2009ko maiatzaren 28ko osoko bilkurako erabakian. Ondorioz, ondoriorik gabe geratzen da 2005eko urriaren 10eko 5383 Dekretuko bigarren puntuari erabakitakoa, 2005eko Eskaintza Publikoaren onespenera buruzkoa den bezainbatean, hurrengo lanpostuei dagokionez: Gizarte Langilea (3 lanpostu), Arkitekto/Ingeniari Teknikoa (3 lanpostu), Zerbitzuen Jagolea (lanpostu 1) eta Prebentzioko Teknikaria (lanpostu 1), eta barne sartuta geratzen dira 2010eko Enpleguaren Eskaintza Publiko berriari Gizarte Langileari dagokion 3 lanpostu, Arkitekto/Ingeniari Teknikoko 2 lanpostu, Zerbitzuen Jagoleari dagokion lanpostu 1, eta bertan behera geratzen dira Arkitekto/Ingeniari Teknikoko lanpostu bat eta Lan Seguratasuneko Teknikariari dagokion lanpostu bat, aipatu lanpostuak amortizatuta geratzen baitira, 2010eko maiatzaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

ERANSKINA

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA, 2010 EKITALDIARI DAGOKIONA.

SARRERA LIBREKO SISTEMA

Taldea (7/07 Legearen art. arabera)	Sailkapena	Lanpostuaren deskripzioa	Plaza kop.	hizkuntza eskakizuna
A2	Administrazio Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa. Mota, Erdi mailako Teknikaria	Gizarte langilea	3	2
A2	Administrazio Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa. Mota, Erdi mailako Teknikaria	Obra Publikoetako Arkitekto Teknikoa, Teknikaria	2	2
C1	Administrazio Bereziko Eskala Azpi-eskala administratiboa	Administratiboa	2	2
E	Administrazio Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpi-eskala. Mota: Ofiziotako Langilea.	Eraikin Publikoak Mantentzeko Arduraduna	2	2

Bakoitzari dagozkion deialdietan zehaztuko dira eskaintako lanpostuetara sartzeko prozedura eta baldintzak.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA, 2010 EKITALDIARI DAGOKIONA.

BARNE SUSTAPENEN SISTEMA

Taldea (7/07 Legearen art. arabera)	Sailkapena	Lanpostuaren deskripzioa		Plaza kop.	hizkuntza eskakizuna
A1	Administrazio Eskala. Azpi-eskala teknikoa	Orokorreko	Administrazio Teknikaria	Orokorreko	1 3
C1	Administrazio Eskala	Bereziko	Zerbitzuen jagolea		1 2
	Azpi-eskala: bereziak	Eginbehar			
C2	Administrazio Eskala	Bereziko	Obretako Jagolea		1 1
	Azpi-eskala: bereziak	Eginbehar			
C2	Administrazio Eskala	Bereziko	Pintorea		1 1
	Azpi-eskala: Langilea.	Ofiziotako			
C2	Administrazio Eskala	Bereziko	Iturgina		1 1
	Azpi-eskala: Langilea.	Ofiziotako			

Bakoitzari dagozkion deialdietan zehaztuko dira eskaintako lanpostuetara sartzeko prozedura eta baldintzak.

Basaurin, 2010eko apirilaren 12an. ALKATE ANDREA.- LOLY DE JUAN DE MIGUEL